

Pau Joan Hernàndez  
*Izuaren Eskifaia*  
Itzultzailea: Karlos del Olmo  
Edebé-Giltza, Periskopio saila  
Bartzelona, 2004

### **Abenturaren bide agortezinak**

Aurtengo Edebé Gazte Nobela Sariak *Izuaren Eskifaia* abenturetako nobela argitaratu berria ezezik, luzaroan hizkuntza askotako hitzekin borroka isilean ibilitako Pau Joan Hernàndez egile eta itzultzailea ere argitara ekarri digu. Pau Joan, izan ere, euskaratik katalanera zuzen-zuzenean itzultzeko gai den itzultzaile bakarrenetarikoa baita: besteak beste Joan Mari Irigoienen *Babilonia*, Unai Elorriagaren *SPrako tranbia*, eta haur eta gazte literaturako egile askoren obrak katalanera aldatu ditu: P. Zubizarreta, M. Landa, Txiliku, H. Etxeberria, K. Linazasoro... Gainera, hizpidea gaurko liburuaren ingurura ekarriz, nazioarteko zenbait klasikoren itzultzaile izan da, hala nola *Frankenstein* eta, batez ere, *Altxor Uhartea*.

Stevensonen obra horrek zabaldu zuen itsas abentura-generoaren eragina guztiz nabarmena baita *Izuaren Eskifaia* eleberrian. Bien arteko tartea, ordea, 123 urtekoa da, eta hori ezin da oharkabean pasatu. Pau Joan Hernàndezen istorioa XXI. mendekoa da, nahiz eta XVII. mendetik aurrera ugaltzen hasitako pirata batzuen ondorengoekin zerikusia izan: luze -luzeegi, agian- erakusten dira pirata-mota desberdinen arteko aldeak, eta pirata historiko bakoitzaren azio eta balentriak. Baina abentura klasikoa sinesgaitza da gaur egun, eta, sarritan esan den bezala, abentura modernoak bere bideak bilatu behar ditu. Kasu honetan, bide hori abentura, misterio eta magiaren arteko mestizaiatik dator, azkenotan ezinbestekoa dirudien ordenagailu eta informatika-hackerren presentziarekin batera. Protagonista mutil gazte bat da, nobelan bertan aipatzen den Jim Hawkins-en antzerakoa; hura bezala, urrundu egiten da etxetik, eta itsasoratu, eskifaia ezezagun batekin elkartzeko; bidaia hori, haatik, oso domestikoa da, eta aurkariak ikusezinak: zerbitzu bitxiak eskaintzen dituen amerikar konpainia misteriotsu bat. Alde horretatik, irakurtzeaz bat, J. M. Gisbert-en misteriozko eleberriak datozke gogora. Amaiera da, ezbairik gabe, nobelaren alderdirik ahulena, trama guztia Antilletako magiaren menpean jartzen denean, alegia.

Orohar, ondo irakurtzen den eleberria da, kapitulu laburrez osatua, gazte abenturazaleek gustura irakurriko dutena. Itzulpenari dagokionez, egilearen antzera itzultzaile eta sortzaile den Karlos del Olmoren eskutik joan da: bizkaierazko ñabardura lexiko

koloretsuen bidez, “bolumena” eman dio liburuari, tankera honetako idazlanen ohiko itzulpenen lautasunarekin alderatuta.

Manu Lopez Gaseni